

ARABAKO ERRIOXAKO ESFÉRICA ZOKKETA

1. Enpresa antolatzailea

Sustapen-ekintza Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailak sustatu du (helbidea: Probintzia plaza, 01001 Vitoria-Gasteiz, Araba). Lehiaketa 2ados Comunicación Global y Organización de Eventos S.L. enpresak antolatu du (helbidea: Mariturriko bulebarra 42, 01015 Vitoria-Gasteiz, Araba; IFK: B01405315).

2. Lehiaketaren helburua

Lehiaketa honen helburua, Araba Turismoko Instagrameko profilaren bitartez jarraitzaile bati Arabako Errioxa Esférica -ren jaialdira joateko bi sarrera ematea da. Jaialdia abuztuaren 18an, 19an eta 20an izango da. Saria 6. atalean azaltzen da.

3. Lehiaketaren hasiera- eta amaiera-datak

Jarduera honen hasiera eta amaiera datak hauek dira: 2023ko uztailaren 21etik 2023ko uztailaren 26ra, 10:00ak arte. Lehiaketa Araba Turismoko Instagram profilean bakarrik egingo da: @alavaturismo

- 2023ko uztailaren 21ean: lehiaketa Araba Turismoko Instagram profilean argitaratuko da.
- 2023ko uztailaren 21etik 2023ko uztailaren 26ra: lehiaketan parte hartzeko epea.
- 2023ko uztailaren 26an: lehiaketaren zozketa online plataforma baten bidez egingo da. Zozketa grabatu eta stories-en argitaratuko da Araba Turismoko Instagrameko profilean.
- 2023ko uztailaren 26an: irabazlea jakinaraziko da, Araba Turismoko Instagram profilaren bidez.
- 2023ko uztailaren 26tik 2023ko uztailaren 30era: irabazleak Araba Turismoarekin harremanetan jartzeko eta saria eskatzeko epea.

4. Parte hartzeko mekanika

Hauek dira parte hartzeko jarraitu beharreko urratsak:

- Jarraitu Araba Turismoko Instagrameko profila: [www.instagram.com/alavaturismo /](https://www.instagram.com/alavaturismo/)

- Argitalpenari 'Gustatzen zait' ematea.
- Utzi iruzkin bat Arabako Errioxako Esférica jaialdia partekatu nahiko zenukeen pertsona aipatuz.
- Nahi adina pertsona aipatu edo etiketatu ahal izango dira, iruzkin bakoitzean pertsona desberdin bat aipatzen bada.

5. Parte-hartzaileak

Jarduera honetan doan eta borondatez parte har dezakete 18 urtetik gorako pertsona fisikoek, Instagramen benetako profila dutenek, Araba Turismoko jarraitzaileak badira eta lehen aipatutako dinamikaren baldintzak betetzen badituzte.

Lehiaketa honetan ezin izango dute parte hartu jarduera sustatzen duten erakundeko langileek, ezta enpresa antolatzaileko langileek ere. Halakorik gertatuz gero, erakunde antolatzaileak automatikoki baztertuko ditu partaidetza horiek.

Lehiaketan parte hartu nahi duten pertsonen profila irekita izatea gomendatzen zaie zozketa iraun bitartean, antolakuntzak euren jarraipena egiteko helburuarekin. Erakunde antolatzaileak ez du bere gain hartuko parte-hartzaileek erraztutako datuen egiazkotasunaren erantzukizuna ezta parte-hartzaileekin eta irabazleekin harremanetan jartzeko aukera ez izatea ere, emandako datuak okerrak izateagatik ala akatsak edukitzeagatik. Sustatzaileak eta antolatzaileak lehiaketaren funtzionamendua oztopatzen duten partehartzaileak baztertzeko eskubidea izango dute.

Irabazlearekin ezarritako epearen barruan harremanetan ez jartzekotan, zozketa berri bat egingo litzateke ordezeko bat aukeratzeko. Kasu honetan ere, ezinezkoa izango balitz irabazlearekin harremanetan jartzea, saria eman gabe geratuko da.

Akats teknikoak edo sustatzailearen eta antolatzailearen kontrolpean ez dagoen eta sustapenaren garapen normalari eragiten dion beste edozein arrazoigaitik zozketa ezin bada egin, sustatzaileak eta antolatzaileak eskubidea izango dute sustapena ezeztatzeko, aldatzeko edo eteteko. Era berean, sustatzaileak eta antolatzaileak lehiaketaren mekanikari eta sariei buruzko aldaketak egiteko edo eranskinak gehitzeko eskubidea izango dute, betiere parte-hartzaileei behar bezala jakinarazten bazaie.

6. Saria

- Arabako Errioxako Esférica -rako bi sarrera 2023ko abuztuaren 18, 19 eta 20an.

Sariak aurretik zehaztutakoa baino ez du barne hartzen. Saria EZ DU BARNEAN HARTZEN garraioa, jaialdiaren ostatua eta aurreikusitako esperientziak: jarduerak, dastatzeak, ibilbideak...

Irabazleak onartzen du bere datu pertsonalak jarduera hau antolatzen duen enpresara transferitzea, harremanetan jartzeko eta sariaren xehetasun guztiak koordinatzeko.

7. Irabazlearekiko harremanai

Irabazlearekin harremanetan jartzeko, Instagram argitalpenean aipamen bat egingo da eta Araba Turismoko profil ofizialaren bidez mezu pribatu bat bidaliko da.

Irabazlearekin 2023ko uztailaren 26an jarriko gara harremanetan, Instagram argitalpenean aipamen bat eginez eta profil ofizialaren bidez mezu pribatu bat bidaliz. 2023ko uztailaren 30era arteko epea izango du erantzuna emateko eta bere saria eskatzeko.

8. Oinarriak onartzea

Parte hartze soilak oinarri horiek bere osotasunean onartzea dakar eta, beraz, horiek ez onartzeak parte-hartzailearen baztertzea ekarriko du. Horren ondorioz, erakunde antolatzaileak parte-hartzaile horrekin hartutako betebeharra betetzetik libre geratuko da.

Saria onartzean, irabazleak bere gain hartzen ditu gainontzeko gastu guztiak, jarduera honetan sartuta daudenak izan ezik.

9. Instagrametik bereiztea

Jarduera honen sustatzailea Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Saila da, eta 2ados Comunicación Global y Organización de Eventos SL enpresa antolatzailea. Instagramek ez du inolako loturarik lehiaketaren kudeaketa eta sustapenarekin. Parte-hartzaileek emandako informazio guztia sustatzaileari eta antolatzaileari ematen zaie, eta ez sare-sozialari.